BUSTURIALDEKO XIII. ENPRESA IDEIA LEHIAKETA

OINARRIAK

Bermeoko eta Gernika-Lumoko udaletako gazteria zerbitzuek eta Urremendi Landa Garapen Elkartearen gazteria zerbitzuak Busturialdeko XIII. Enpresa Ideia Lehiaketa antolatu dute Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, "Lana bilatzea, Lana da" eskualdeko gazteei laguntzeko programaren barruan.

1.- LEHIAKETAREN HELBURUAK

- Busturialdean kultura ekintzailea sustatzea, komertzialki bideragarriak diren zerbitzu eta produktuak garatze aldera.
- Enplegua eta aberastasuna sortzea Busturialdean.
- Busturialdeko ekonomiaren garapena bultzatzea eta sustatzea.
- Enpresa-proiektu onenak saritzea.

2.- PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketan 18 eta 35 urte bitarteko gazteek edo gazte-taldeek parte hartu ahal izango dute, Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta badaude eta negozio-ideia eta jarduteko gaitasun osoa badute, eta enpresa-ideia (enpresa edo ekoizpen-gunea) Busturialdean badago. Zerbitzu edo produktu baten ideia sortzaileak izan daitezke, edo 2025an edo 2026an sortutako negozioak/enpresak, baina derrigorrez Busturialdean kokatuta egon beharko dute, eta sustatzaileak goian adierazitako adin-eskakizuna bete beharko du.

3.- SARIAK

Lau sari hauek emango dira:

- ✓ **1. saria:** 3.000 €* + Urtebeterako aholkularitza zerbitzua**
- ✓ **2. saria:** 2.000 €* + Sei hilabeterako aholkularitza zerbitzua**
- ✓ **Lehen sektorearekin lotutako ideia onena:** 1.000 €* (Aurreko sarietakoren bat jaso ez badu).
- ✓ **Ekonomia Urdinaren sari berezia:** 1.000 €* (Aurreko sarietakoren bat jaso ez badu).

Epaimahaiaren iritziz ideiek ez badute gutxieneko kalitate eta originaltasun mailarik, sariak (bat, batzuk edo guztiak) eman gabe gera daitezke.

Epaimahaiaren erabakia sari-banaketaren ekitaldian jakinaraziko da.

Saritutako ideia guztiak Busturialdeko gazteria zerbitzuen esku geratuko dira, zeinek enpresa-ideia abian jartzeko ahalmena izango duten, ideia aurkeztu duenarekin batera zein bera gabe.

** Sariaren %70a sari banaketaren egunean jasoko da. Gainerako %30a, aldiz, sarituek beren enpresa-proiektuak/ideiak garatu eta martxan jartzean jasoko da. Hori egiaztatzeko dagozkien ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.*

*** Zerga, lan eta kontabilitate-aholkularitza. Torrealday Aholkularitzak emandako saria.*

4.- BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA EBAZTEKO PROZEDURA

Epaimahaiak jarraian adierazitako irizpide, meritu eta elementuak baloratuko ditu aurkeztutako proiektuetan:

1. Ideiaren originaltasuna eta berrikuntza maila: balio erantsia edukitzea edota originala izatea.
2. Talde edo norbanako ekintzaileak proiektua garatzeko dituen gaitasunak.
3. Enplegua sortzeko aukera eta horien kalitatea.
4. Negozioaren potentziala, garapen maila eta Busturialdean gauzatzeko bideragarritasun teknikoa eta ekonomiko-finantzarioa.
5. Eskura dauden baliabideen aprobetxamendua, jasangarritasuna eta proiektuaren gizarte-erantzukizuna.
6. Gizarte-eragina.

Bozketaren arauak:

Lehenengoa.- Epaimahaikideak nortzuk diren Bermeoko eta Gernika-Lumoko udaletako iragarki tauletan, Urremendiko iragarki-taulan, www.gaztedibusturialdea.eus webgunean eta Bizkaia Gazteak Busturialdea proiektuaren gizarte sareetan jakinaraziko da proiektuak aurkezteko epea amaitu eta 3 eguneko tartean. Erakunde antolatzaileek erabakiko dute epaimahaia hiru, bost ala zazpi kidek osatuko duten.

Bigarrena.- Lehiaketa eta/edo sariak (guztiak edo batzuk) hutsik geratu ahal izango d(ir)a epaimahaiak egokitzat jotzen badu, edo uste badu aurkeztutako ideiek ez dutela gutxieneko mailarik.

Hirugarrena.- Epaimahaiak aurkezten diren proiektu guztiak baloratu beharko ditu. Bozketaren hasieran, epaimahaikideek gehiengoz erabaki beharko dute proiektuak osorik baloratuko dituzten (sei irizpideak kontuan hartuta) ala balorazio-atal bakoitzari portzentaje bat esleituko dioten. Era berean, eta gehiengoz beste behin, erabaki ahal izango dute beste balorazio-eredu bat erabiltzea, betiere lehen adierazitako irizpideei jarraikiz.

Laugarrena.- Epaimahaiaren botoen aurka ezingo da ez apelaziorik ez errekurtsorik aurkeztu, haien eginkizuna, neurri handi batean, baloraziozkoa baita.

Bosgarrena.- Epaimahaiak oinarri hauetan araututa ez dauden gai guztiak interpretatzeko ahalmena du.

5.- AURKEZPENA ETA EPEA

Aurkeztutako proposamenak jaso behar dituen dokumentazioa eta edukia:

- Izena-emateko fitxa (www.gaztedibusturialdea.eus webguneko eredua).
- Proiektu edo negozioaren garapen-memoria edo negozio-plana.
- Ikus-entzunezko aurkezpena, lehiaketara aurkeztutako enpresa-ideia azalduz. Aurkezpen horrek gehienez bi minutuko iraupena izango du.

- Beste gutun-azal itxi batean, sustatzailearen edo sustatzaileen datuak (eredua hemen eskura daiteke: www.gaztedibusturialdea.eus), honako hauekin batera:

  ✓ NANaren fotokopia(k).

  ✓ Curriculuma(k).

  ✓ Aurkezten den ideiaren izenburua.

  Oharra: dokumentazio eta agiri guztiak paperean aurkeztu beharko dira, Bermeoko edo Gernika-Lumoko Gazteentzako Informazio Zerbitzuetan edo Busturialdeko Herri Txikien Gazteria Zerbitzuan, Gautegiz Arteagan. Dokumentazio osoa aurkeztu ezean, epaimahaiak ez du ideia edo negozioa baloratuko.

Proiektuak aurkezteko azken eguna: 2026-11-06 (14:00ak arte).

Epaimahaiak proiektua ahoz aurkezteko deia egin ahal izango die hura osatzen duten pertsona bati edo batzuei, erabaki bat hartu aurretik.

6.- SARI-BANAKETA

Sariak 2026ko azaroaren 26an banatuko dira, Busturiko BBK Urdaibain.

Parte-hartzaileei sari-banaketaren ordua jakinaraziko zaie. Izan daitezkeen aldaketa guztiak www.gaztedibusturialdea.eus webgunean eta Bizkaia Gazteak Busturialdea proiektuaren eta erakunde antolatzaileen gizarte sareetan argitaratuko dira.

7.- JABETZA INTELEKTUALA

Busturialdeko Gazteria Zerbitzuek (Bermeoko eta Gernika-Lumoko udalak eta Urremendi LGE) saritutako proiektuen ideia guztiak eta jabetza intelektuala bereganatuko dituzte. Horrenbestez, askatasun osoa edukiko dute enpresa-ideia martxan jartzeko, zuzenean edo hirugarrenen bitartez eta ideia aurkeztu duen pertsonarekin batera edo hura barik, betiere sortzaileak (edo sortzaileek) idatziz adierazten badu ez duela ideia garatzeko asmorik.

8.- DATU PERTSONALAK

Parte-hartzaileek parte hartzeko eskaerarekin batera sinatu beharko dute berariaz onartzen dutela beren datuak Urremendi Landa Garapen Elkartearen eta Bermeoko eta Gernika-Lumoko udalen datu-baseetan sartu, erabili eta gordetzea;

bai eta Urremendi Landa Garapen Elkartearen bazkide diren udalerriei eta Bizkaiko Foru Ogasunari lagatzea ere.

Bestalde, lehiaketan parte hartzean baimena emango dute haien izena eta bi abizenak aurkeztutako proiektuari lotuta zabaltzeko: prentsan, hedabideetan eta iragarki-tauletan.

Halaber, berariaz baimenduko dute sari-banaketan ateratako argazkiak eta bideoak –zeinetan gertatu liteke parte-hartzaileak agertzea– gorde, erabili eta zabaltzea: prentsan, hedabideetan eta iragarki tauletan nahiz lehiaketaren hurrengo edizioetako iragarkietan.

9.- INFORMAZIO GEHIAGO

- **Bermeoko Gazteentzako Informazio Zerbitzua (GIZ)**
  Gizarte eta Kultura Etxea - Irakaskintza 14-16 - 48370 BERMEO
  giz@bermeo.eus – Tel.: 94 617 91 58 – www.gizbermeo.blogspot.com

- **Busturialdeko Herri Txikien Gazteria Zerbitzua – URREMENDI LGE**
  Herriko Plaza 1 (Udaletxeko goiko solairua) - 48314 GAUTEGIZ ARTEAGA
  gazteria@urremendi.eus - Tel.: 94 625 76 09

- **Gernika-Lumoko Gazteentzako Informazio Bulegoa**
  Foruen plaza 2 - 48300 GERNIKA-LUMO
  gazteria@gernika-lumo.eus - Tel.: 94 627 02 15

Busturialdean, 2026ko urriaren 6an